

Ezpalak

JON TORNER

Akauzazteren aurrenekoa kasetean eta Lisabö biniloan



AKAUZAZTE taldearen lehendabiziko grabazioa, *Maite Zaitut* (1992), kasetean berrargitaratu du Madrilgo Afeite al Perro zigiluak. Bestalde, Bidasoaldeko Bidehuts kolektibo-

ak Lisabören *Ezarian* lana berrargitaratu du biniloan, diskoa plazaratu zen 10. urteurrenaren harira. Hain justu, Elkarrek bere katalogoko sei disko berrargitaratu ditu jatorrizko formatuan, biniloan, bermasterizaturik: *Noche de rock & roll* (Barricada), *Kortatu* (Kortatu), *Inadaptados* (Cicatriz), *Salve* (La Polla Records), *Hautsi da amphora* (Ruper Ordorika) eta *Bat-Hiru* (Mikel Laboa).

Antxeta Irratia 10. urteurrena prestatzen hasi da

BEHE BIDASOA eskualdean, mugako bi aldeetan emititzen duen Antxeta Irratiak 2011ko otsailaren 14an hamar urte beteko ditu. Baionako Entzun Ikus eta Irungo Pausu Elkartearen artean sorturiko irratiaren urteurrena ospatzeko zenbait ekimen antolatzen hasiak dira, *Entzun, esan adierazi... Antxeta Irratia luzaroan biz!* kanpainaren baitan. Logotipoa eguneratzeko eta irrati-nobela lehiaketak, mugimendu feministarekin batera autodefentsa tailerrak, Europa mailako I. irrati topaketak... asko dira hil honetan hasi eta datozen urteari begira antolatu dituzten ekimenak.

Anjel Lertxundi idazle oriotarrak jasoko du Espainiako Saiakera Saria, *Eskarmentuaren paperak* (Alberdania) lanagatik. Hainbat literatur gairen inguruan antolatutako glosak, zatiak, testu laburrak, hausnarketak, haurtzaroko oroitzapenak, idazle estimatuen aipuak... bildu ditu liburu horretan. “Ez da autobiografia bat, baina badu autobiografiatik”, diote Alberdaniakoek euren webgunean: “Ez da oroitzapen liburu bat, baina asko zor dio oroi-menari. Dietario batetik hurbil dago, baina ez dago egunerokotasunaren mende. Bere buruaz ari da autore, baina ez da bere burua liburuaren xedea. Xedea da berrogei urtean jarraitu dion irakurlearekin elkarizketan sartzea”.



DANI BLANCO

Juan Zapater nafarrak zuzenduko du Bilbao Arte fundazioa, artista gazteen lana ezagutzera ematea xede duen ekimena. 1998an sortu zen fundazioa, Bilboko Udalaren kontrolpean, eta orduetik Javier Riaño izan da zuzendari karguan. Urtero hogeitatu bat autoreri lan egiteko toki bat ematen diete Bilbao Arteko instalazioetan, hamabi hilabetez euren proiektuak garatzeko aukera izan dezaten.

‘Beldurra’ izeneko erakusketa pedagogikoa izango da ikusgai Gasteizko Artium museoan 2011ko ekainera bitartean. Gure beldurren jatorriari eta izaerari buruzko gogoeta bultzatu nahi du erakusketak. Ignasi Aballí, Pedro G. Romero, Mayte Vieta, Charo Garai-gorta, Marina Nuñez, Elena Blasco eta Santiago Serrano artisten margolan, marrazki, eskultura eta collageak bildu dituzte bertan.

● Damian Muñoz dantzari eta koreografoak *Garan*:

«Max saria irabaztea niretzat ez zen hain garrantzitsua izan: jasotzera ere ez nintzen joan. Hainbesteko eragirik ez duten gauza horietako bat da, nahiz eta hedabideek eta gainerako pertsonak zuk baino garrantzi handiagoa ematen dioten. (...) Norvegiako Konpainia Nazionalarentzako pieza bat egin dugu. Hori bada garrantzitsua, edozein sari baino gehiago, oihartzun txikiagoa duen arren. (...) Krisia dela-eta, urte txarra izaten ari da. Arte eszenikoentzako ez da batere ona izan eta, dantzarentzat, are gutxiago».

● Isabel Herguera artista eta zinemagileak animazioaz hitz egin du *Berrian*:

«Ez da eskulana galtzen ari dena, kontakizunaren egituraren oinarriak baizik, eta zehazki animazioan mugimendua dena. Ahaztu egiten da animazioa ez dela soilik gauzak mugitzea, baizik eta gauzei izaera bat ematea, eta hartarako oso kontuan hartu behar dira naturaren legeak, fisika, abiadura, pisua... horiek denek osatzen dute ekintza. Emozioa emateko gauzak modu jakin batean mugitu behar dira, hori da animazioaren ezagutza. Horregatik diot batzuetan ofizioa ahazten dela».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php